

● LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO ●

HITZA

[GAIAK](#) [IRITZIA](#) [HERRIAK](#) [AGENDA](#) [BIDEO ERREPORTAJEAK](#) [ATAL BEREZIAK](#) [EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK](#)Nork: [Nerea Bediauneta Alkorta](#) -Urr 6, 2016

OLERKI LIBURU BERRIA AURKEZTU DU MIKEL ETXABURU ONDARRUTARRAK



BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALIK DAGO

PUBLIZITATEA

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2016

Lotutakoak

ETIKETAK ATALAK EGILEAK

Bisita gidatua eta dokumentala gaur eta ...
 Nork: Eider Mugartegi - Urr 7, 2016
 ■ Kultura


Debakarrak eta artista eta sortzaileek sor ...
 Nork: Nerea Bedialauneta Alkorta - Urr 5, 2016
 ■ Kultura

Mikel Etxaburu idazle ondarrutarrak *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016) **hirugarren olerki liburua** aurkeztu du gaur [urriak 6] Donostiako udal liburutegiko sotoan.

Argitalpena, hain zuzen ere, [Erein](#) argitaletxeak eta [Bilboko Udalak](#) elkarlanean kaleratu dute. Idazle ondarrutarrak iaz Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketako [sari nagusia](#) lortu zuen euskal lanen kategorian, eta saritutako lana da orain kaleratutakoa.

Olerki sorta sariketara aurkeztu zen antzera argitaratu bada ere, aldaketarik nabarmenena titulua izan da. Sortak, berez, beste izen bat zuen, *Hirian zainetan*, baina Etxaburuk **hasierako titulua aldatzea** eskatu duela azpimarratu du. "Olerki sorta sariketara aurkeztu nuenean, ez nuen uste saria irabaziko nuenik, eta hortaz, ez nuen titulua gehiegirik pentsatu. Lana argitaratu egingo zela jakin nuenean, ostera, zer hobetu bazegoela iruditu zitzaidan, eta argitaletxeari hori aldatzeko proposamena egin nion, eta onartu egin zidaten".

 **Ondarroako ikasleek V. Augustin Zubikarai**
 ...
 Nork: Nerea Bedialauneta Alkorta - Urr 4, 2016
 ■ Kultura

 **Kirmen Uriberen 'Mussche' japo ...**
 Nork: Nerea Bedialauneta Alkorta - Urr 4, 2016
 ■ Kultura



Mikel Etxaburu bere liburu berriagaz, Donostiako Federico Garcia Lorca Pasealekuan. Argazkia: Erein

Poema sortari dagokionez, **“bere egunerokotasuna” kontuan hartuta** idatzi duela aurreratu du Etxaburuk. “Egunerokotasunak guztiz baldintzatua dago lana, eta zehazki, Bilbon dago kokatuta. Batez ere, Bilboko auzo zehatz batzuk dira bertan agertzen direnak: San Francisco, Bilbo Zaharra, Cortes... horako egunerokotasuna gogora ekarri eta beste batzuen azalean kokatu nahi izan dut. Poesia gauzen edo gertakari sekretuen taupada da. Poemak sentitze horretatik eginak daude, egoera, pertsonen edo gauzen taupada sekretu horiek ulertu nahian”.

Era berean, poema liburuagaz irakurleak **ariketa bat** egitera bultzatu nahi izan du ondarrutarrak. “Irakurleak begiratzetik ikustera pasaraztera gonbidatu nahi izan ditut. Hau da, albokoaren, bestearen edo lagun urkoaren azalean ipintzea nahi izan ditut. Askotan errezagoa da norberak norberanari eutsi, eta ingurukoekin jabetu orde bestea alhora begira bideztea, eta lan honeguz nire ingurune hurbilean gertatzen diren gauza horien inguruan kontzientzia hartzera gonbidatu ditut irakurleak”.

KULTURA

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU

AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK



Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko e

...
Nork: [Nerea Bedialauneta Alkorta](#) - Urr 10, 2016
■ [Gizartea](#)



Jean Vicent Garatek irabazi du sari nag ...

Nork: [Larraitz Ibaibarraiga](#) - Urr 8, 2016
■ [Amoroto](#)



Saiñazio Mendi Azpizan: “Etxebizitz

...
Nork: [Larraitz Ibaibarraiga](#) - Urr 8, 2016
■ [Gizartea](#)



San Inazio 48-52 atarrietako 24 familia

...
Nork: [Nerea Bedialauneta Alkorta](#) - Urr 7, 2016
■ [Gizartea](#)

Markina-Xemeingo Artibai Mendigoizale Tald ...

Nork: [Eider Mugartegi](#) - Urr 7, 2016
■ [Gizartea-Laburrak](#)



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code*

ALBISTEAREN IRUZKINAK



[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)

[Onartu](#)